

III. ERANSKINA

PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEAREN ONDORIOETARAKO)

<u>Modalitate teknologoa</u>	TEKNOLOGOEN PRESTAKUNTZA
Proiektuaren kodea	T2
Izenburua	Elikagaien garapenari aplikatutako adimen artifiziala.
Ikastetxea	AZTI, Derio (Bizkaia)
Saila/Zuzendaritza/Arloa	Elikagaien Ikerketarako Unitatea
Ikerketa-taldea	Elikagai berriak
Proiektuko tutorea (k)	Esther Sanmartín
Laburpena	<p>Adimen artifizialaren (AA) eta elikagaien industriaren arteko sinergiak aurrerapen esanguratsuak ditu gaur egun. Datu-zientziari esker, datu-multzo handien azterketa sakona egin daiteke, lehen begiratuan begi-bistakoak ez izan litezkeen patroiak eta erlazioak aurkitzeko. Elikagaien industrian eta, zehazki, osagaien portaerarekin lotutako datuetan datu-meatzaritzako teknikak aplikatzean, elikagaiak garatzeko osagai-konbinazio optimoak identifika daitezke.</p> <p>Testuinguru horretan, teknologoaren bekarako proposamena teknologia berrien ikerketan, autoikaskuntzako lengoaiaren tekniketan eta elikagaien garapenarekin lotutako informazioaren interkonexioa ahalbidetuko duten datuen arkitekturetan oinarrituko da.</p> <p>Berrikuntza eta produktu berrien garapena bizkortzeko tresnak ikertu eta garatu nahi dira, herritarren beharrei erantzuteko eta elikagaien sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.</p> <p>Teknologo-bekarako proposamenaren helburua beka eskuratzen duen pertsonak hainbat gaitasun garatzea da. Alde batetik, adimen artifizialarekin lotutakoak, eta, bestetik, elikagaien industriaren ezagutzarekin lotutako gaitasunak.</p> <p>Adimen artifiziala indar handiz sartzen da elikaduraren munduan, eta aukera bat da esploratu gabeko eremu emankor batean sartu nahi dutenentzat.</p>
Bestelako informazioa	<p><u>Honako hauetan titulazioa/ikasketak eskatzen dira:</u></p> <ul style="list-style-type: none">• Telekomunikazio Ingeniaritza• Informatika Ingeniaritza• Matematikako Gradua• Estatistikako Gradua• Adimen Artifizialeko Gradua• Datuen Analisisiko Gradua• o Gradu baliokidea• o Gradua Elikagaien Zientzian eta Teknologietan, Ingeniaritza Agronomoa edo datuen zientzian egiazta daitezkeen ezagutzak dituen baliokidea <p><u>Beste ezagutza batzuk:</u> python, keras eta tensorflow-en programazioari</p>

Harremanetarako datuak

buruzko ezagutzak. Deep learning, machine learning, iot. Rko programazioa.

Positiboki baloratuko da elikaduraren arloan eta ikerketa zientifikoaren arloan ezagutzak eta/edo esperientzia izatea.

esanmartin@azti.es